

PRENTSA OHARRA

#SuMayorInfluencer

Euskadiko 3 nerabetik 1ek Interneten eta sare sozialen erabilera problematikoa egiten du

UNICEFek teknologiak haur eta nerabeengan duen eraginari buruz orain arte egin den txostenik garrantzitsuena ezagutzera eman du

Erakundeak haurren eta nerabeen eskubideak ingurune digitalean bermatzeko politika sendoagoak eskatu ditu

BILBO, 2021eko azaroak 16 - Euskadiko hiru nerabetik batek Interneten eta sare sozialen erabilera problematikoa egiten du, eta bostetik bat bideojokoetara engantxatuta egon daiteke neurriren batean, UNICEFek gaur plazaratu duen *Teknologiaren Eragina Nerabezeroan*. Harremanak, arriskuak eta aukerak txostenaren arabera. Azterlanean – gai horri buruz orain arte estatuan eta Europa mailan egin den handiena – DBHko (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) 50.000 ikasle baino gehiagoren iritziak jaso dira, horietatik 5.600 baino gehiago Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 23 ikastetxetakoak izanik.

“Aurrerapen teknologikoen, zalantzarik gabe, onurak eta aukerak dakartzate gure gizartearentzat, baita gure haur eta nerabeentzat ere. Baina ezin ditugu ahaztu haur eta nerabeentzat izan ditzaketen arriskuak, baldin eta esposizio goiztiar bat gertatzen bada, edo laguntzarik gabe Internet, sare sozial edo bideojokoetan aritzen badira”, adierazi du UNICEF Espainiako presidente Gustavo Suárez Pertierrak, Bilboko Yimby espaziotik egindako online konexioan. “Txosten honekin, teknologiak gure nerabeengan duen eraginaren erradiografia egiteaz gain, haurren eskubideak ingurune digital honetan ere errealitate izan daitezten sustatu nahi dugu”, gaineratu du. Bestalde, Antonio Rial Santiago de Compostelako Unibertsitateko Psikologiako irakasle eta ikerketaren arduradunak txostenaren datu nazionalak aurkeztu ditu.

UNICEF Euskal Herriko Batzordeko presidente Isidro Elezgarai emandako Euskadiko datu autonomikoen artean, %96,8k Interneterako konexioa duen mugikorra duela nabarmentzen da; hala ere, aitortzen dute sareak poza (%96,4), erlaxazioa (%81,1) edo dibertimendua (%76,1) sentiaraz diezaiekeela, txostenetik datu kezagarriak ere ondorioztatzen dira. Hala, inkestatutako nerabeen %35,8k dio eduki erotikoa edo pornografikoa duten orrialdeetan sartu dela; hamarretik batek –sareen, txaten, Interneten edo bideo-jokoen bidez – pertsona heldu baten sexu-proposamen bat jaso du, eta hamarretik bik ziberjazarpena jasan dezake. Nerabeek eurek ziberjazarpena, sextortsioa edo eduki desegokietarako sarbidea identifikatzen dituzte teknologiak dituen arrisku nagusitzat.

Era berean, kezkarria da Euskadiko DBHko 3.000 ikasle inguru online apustu egiten edo jokatzeko hasi izana, eta horrek epe ertainera ludopatia bat garatzeko arriskua biderkatzen du. Eta inkestatuen %28,9k gutxienez astean behin teknologia dela-eta eztabaidak gurasoekin edo zaintzaileekin izan dituztela esan arren, txostenak egiaztatzen du %26,5ek soilik jartzen dizkietela Interneten eta/edo pantailen erabilerrari buruzko arauak, eta %37,4k diote gurasoek mugikorra erabiltzen dutela otorduetan. Elezgarrik azaldu duenez, "mugikorra oso gaztetatik erabiltzen da, eta sare sozialetan ez egotea aparteko gertakaria da nerabezeroan. Ziberjazarpenari buruzko datuak kezkarriak iruditzen zaizkigu, eta prebentzioa funtsezkoa dela uste dugu. Horregatik guztiagatik, azterlan hau aukera paregabea da gure nerabeen iritzia ezagutzeko, ulertzeko eta beronen inguruan jardun ahal izateko".

Zentzu horretan, eskola-jazarpenaren eta ziberjazarpenaren aurkako borroka lehentasuna izan behar du, biktimizazio-tasak estatistika ofizialek eskaintzen dituztenak baino nabarmen handiagoak baitira. Halaber, neurriak hartu behar dira sexting-zifra kezkarriak, ezezagunekiko kontaktua edo balizko *grooming*-kasuak murrizteko, bai eta sare sozialen erabilera problematikoari eta bideojokoekiko balizko adikzioei heltzeko ere. "Datu horiei esker egiazta daiteke lotura estua dagoela teknologia adikzio-modu berriekin edo erabilera problematikoarekin eta osasun mentalarekin, depresio-tasa handiagoekin eta ongizate emozional txikiagoarekin lotura baitago, eta horrek agerian uzten du osasun publikoko arazo bihurtzen ari dela", azpimarratu du Elsa Fuente UNICEF Euskal Herriko Batzordeko koordinatzaileak, Bilboko Yimby gunean egindako txostenaren aurkezpenean.

UNICEFen gomendioen artean, ingurune digitalean ere haurrak eta nerabeak babestu eta zaintzea bultzatzen dutenak, honako hauek daude:

- Familiek hezkuntza- eta laguntza-lana egin ahal izateko tresnak eta laguntza izateko beharra.
- Hezkuntza-sistemak Interneten erabiltzeko beharrezko jarraibideak eta tresnak eskuratzeko funtsezko esparru gisa duen garrantzia sustatzea.
- Nerabeek behar duten informazioa jasotzea, bai arriskuak ulertzeko, bai abusu-egoerak salatzeke.
- Erakundeen politika sendoagoak izatea, haurrak babesteko eta sarean duten irudia hobetzeko.
- Industria teknologikoak nerabeen babesa bermatu behar du, adibidez, erabilera-eta pribatutasun-gomendio argien bidez.

#SuMayorInfluencer kanpaina

Txosten hori kaleratzearen ondorioz, UNICEFek sentsibilizazio-kanpaina bat jarri du abian nazio mailan, Interneten sartu berri diren edo sartzean dauden haurren gurasoei zuzenduta, familiei proposatzeko beren seme-alabei lagun diezaietela orain hasten ari diren bizitza digital horretan. #SuMayorInfluencer traolarekin, Chocolate agentziak garatutako kanpainak beldurrak atera eta aldaketak sorrarazi nahi ditu, beste esparru batzuetan bezala, ingurune digitalean ere gurasoek seme-alabentzako eraginik handiena duten ideia bidez: hemen ere, haien *influencer* handienak izan daitezke.

Kanpainak familientzako baliabideak ditu, eta haien esperientziak partekatzera gonbidatzen ditu, komunitate hartzailea sortuz, teknologiaren erabilera osasungarri, eraikitzaile eta orekatuan eredu izateko urratsa emateko prest.

Kanpaina honi buruzko informazio guztia www.unicef/su-mayor-influencer helbidean dago, eta bertan familientzako zibersegurtasun-lerroa ere sartu ahal izango da, Zibersegurtasuneko Zure Laguntza; Zibersegurtasuneko Institutu Nazionalaren (INCIBE) zerbitzu nazional, doako eta konfidentziala da, eta aholkularitza teknikoa, psikosoziala eta legala eskaintzen die Interneteko eta teknologiako erabiltzaileei, arreta berezia jarriz adingabeei eta pertsona helduei.

Editoreentzako oharra:

Teknologiaren Eragina Nerabezaroan. Harremanak, arriskuak eta aukerak azterlanak (HIKTen erabilera osasungarriari buruzko azterlan ulergarria eta inklusiboa) Espainiako 17 autonomia erkidegoetako titulartasun publiko, pribatu eta/edo itunpeko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 265 ikastetxetako 50.000 nerabe baino gehiagoren iritziak ditu, borondatez parte hartu dutenak, bildutako datuen konfidentzialtasun- eta babes-berme guztiekin. Datuak 2020ko azaroa eta 2021eko martxo bitartean jaso ziren, ikasgeletan egindako online galdetegi baten bidez.

UNICEFen inguruan

UNICEFek munduko haur behartsuenengana iristeko leku zailenetako batzuetan lan egiten du. 190 herrialde eta lurraldetan, haur bakoitzarentzat egiten dugu lan, leku guztietan, egunero, guztiontzako mundu hobea eraikitzeko.

Informazio gehiagorako:

Garazi Barriuso
UNICEF Euskal Herriko Batzordea
Tel: 650207926
E-posta: gbarriuso@unicef.es